

## Bermeo, indarguneetan oinarrituz ahuleziak gainditzeko prest

EBPN



Bermeoko Udalak oraintsu Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostutakoaren arabera, herriak euskararen plan estrategikoa izango du laster. Horretarako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztutako diagnostikoa osatzeari ekingo dio lehenda-

bizi; ondoren, plan estrategikoa prestatuko du udalerrian euskara biziberritzeko lehentasunezkoak diren esparruak, neurriak eta ekintzak zehazteko; lehen urteko kudeaketa-plana ere taxutuko du azkenez, besteak beste diru- eta giza baliabideak zehazteko.

Bizkaiko udalerrri euskaldunenen artean handiena dugun udalerrri honetan euskara indartsu dago, aipaturiko diagnostikoak erakutsi duenez:

- Euskaldunen portzentajea handia da eta gora egiten jarraitu du azken urteotan
- Euskaldunen gorakada gazteenen artean gertatu da batez ere
- Bermeoko hiru lagunetik bi (%67,9) euskaldun zaharrak dira
- Euskararen ondorengoetaratzea familia bidezkoa da nagusiki
- D eredua nagusi da irakasmaila guztietan, Lanbide Heziketan izan ezik
- Bermeo udalerrri euskalduna da, eta Udalak jarduera euskaraz egi-  
tea erabaki du

Badira, halere, indartu beharreko esparruak, lanbide-heziketa eta enpresak, esaterako. Indarguneetan oinarrituta ahuleziok gainditzeko aukera ezin hobea du Bermeok EBPNri heldutakoan.

Gauzak horrela, eskualde bereko udalerrri garrantzitsuenek egingo dute bat ekimen berean, hau da, Bermeok eta Gernika-Lumok, eskualdeko biztanleriaren %73,45ek alegia.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

kodea: .....Lurraldea:.....

Tel.: .....

e-posta: .....

## Euskararen Aholku Batzordea, berriturik

Otsailaren 27an *Euskaldunon Egunkaria* berehala irekitzea eskatu zuen

Euskararen Aholku Batzordea, Euskararen Legearen ondorio da eta euskararen erabileraren normalkuntza lanean laguntzeko harreman organoa da, hizkuntza normalkuntzan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuaren ahaleginak eta ekintzak aztertze-ko, bideratzeko eta koordinatzeko sortua. Euskararen Aholku Batzordea Kultura Sailari atxikita dago, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez. Bere eginbeharretarako, Euskararen Aholku Batzordeak Batzorde Osoa, Batzorde-atal Iraunkorra eta Batzorde-atal berezien bitartez antolatatu eta lan egiten du.



Euskararen Aholku Batzordea 45 kidek osatzen dute, 14 herri aginteetako ordezkariak dira -Lehendakaria buru-, Euskaltzaindiaren izenean euskaltzainburua EABren kidea da eta gainerakoak (30) euskalgintzan, alor desberdinetan, diharduten pertsona ezagunak dira. Osoko bilkuraz eta Batzorde-atalaz gain, Euskararen Aholku Batzordeak bi Batzorde-atal Berezi ditu: Toponimiako Batzorde-atal Berezia eta eraketa berriarekin iaz sortu zen Terminologiako Batzorde-atal Berezia.

Lehendakariaren zuzendaritzapean, Euskararen Aholku Batzordea (EAB) bildu zen Gasteizen urtarrilaren 9an. Bileran, EAB berritu eta gero egin den lehena izan zen. Bileran zehar, honako gaiak jorratu zituen Euskararen Aholku Batzordeak: Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapena, Batzorde osoaren eraketa, Batzorde-atalen egitekoak, lan prozedurak, osaketa eta kideak, eta Euskararen Aholku Batzordearen 2003ko ekintza-plana.

Bestalde, Euskararen Aholku Batzordeak, *Euskaldunon Egunkaria* kazetaren inguruan gertatutakoak aztertze-ko ez-ohiko osoko bilkura izan zuen otsailaren 27an. Bertan, egoera aztertu eta eztabaidatu ondoren, erasoan aurkako adierazpena onartu zuen, *Euskaldunon Egunkaria* berehala irekitzea eskatuz eta euskarazko eguneroko prentsa izateko eskubidea aldarrikatuz.

Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Osoko kideen zerrenda. Presidentea, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria, Juan Jose Ibarretxe Markuartu.

- Kultura sailburua, Miren Azkarate Villar.
- Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Patxi Goenaga Mendizabal.
- HABEko zuzendari nagusia, Jokin Azkue Arrastoa.
- Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak izendatutako ordezkaria: Joseba Alcalde Amutxategi
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak izendatutako ordezkaria, Abel Ariznabarreta Zubero

- Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa: Pedro Sancristóval Murua
  - Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa: Gotzon Lobera Revilla.
  - Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa: Miren Lore Leanizbarrutia Bizcarralegorra
  - Euskal Udalen Elkarte (EUEDEL) ordezkari gisa: Jon Iñaki Zarraga Aburto.
  - Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkari gisa: Kontxi Gabantxo Laka
  - Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia, Jon Urrutia Mingo
  - Euskal Irrati Telebista erakundearen ordezkaria: Julian Beloki Gerra Idazkaria, Miren Mateo Aierza.
- Euskaltzaindiaren ordezkaria:  
Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar Duhalde jauna.

Hizkuntza normalkuntzaren prozesuan eraginik duten arloetako gizon-emakumeak, Kultura sailburuak izendatuta (30 kide):

- Jesus Alberdi Areizaga
- Luzia Alberro Goikoetxea
- Sagrario Alemán Astiz
- Kike Amunarriz Gorria
- Joxi Arakama Karrera
- Andres Arizkorreta Garcia
- Xabier Artola Zubillaga
- Mikel Bujanda Oñederra
- Andoni Egaña Makazaga
- Igone Etxebarria Zamalloa
- Jean Etchegoin Elissagaray
- Alberto Garrido Fuertes
- Aitziber Iartza Etxebeste
- Fernando Iraeta Quintela
- Joseba Irazu Garmendia
- Gonzalo Larruzeta Roman
- Aitor Lz. de Aberasturi Ortiz de Pinedo
- Jose Luis Mendoza Peña
- Laura Moragues Oregi
- Joxe M<sup>u</sup>Mujika Arrieta
- Antton Narbaiza Azkue
- Lourdes Oñederra Olaizola
- Erramun Osa Ibarloza
- Fernando Plazaola Muguruza
- Ramón Saizarbitoria Zabaleta
- Jon Sarasua Maritxalar
- Ana Urkiza Ibaibarriaga
- Eguzki Urteaga Aseginolaza
- Xabier Usabiaga Oiartzabal
- Entzi Zubiri Ibarondo

1

Euskararen Aholku Batzordea

2

PERTSONAJEA:  
Maria Angeles Garai

LABURRAK  
Euskara ikastaroa etorkinentzat

Center for Basques Studies-en bilera

AGENDA  
Nazioarteko Biltzarra: ikaslearen ahozko hizkuntza

3

KORRIKA 13,  
apirilaren 4tik 13ra

Inguma, komunitate zientifiko-intelektualaren datu-basea

4

EBPN udaletan:  
Bermeo

# laburrak



## Euskara ikastaroa etorkinentzat

Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzuak herrian bizi diren etorkinentzako euskara ikastaroa antolatzen du. Ikastaroaren helburua da etorkinek euskara ezagutzeko eta haiei gizartearen txertatzen laguntzea.

Ikastaroa 120 ordukoa izango da, martxotik uztaila bitartekoa. Aste-aren 6 ordu emango dira 3 egunetan banatuta. Orduategia eskaeren arabera zehaztuko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzura jo 943 130960 telefonora.

## Center for Basque Studies-en bilera

Nevada-Reno Unibertsitateko Euskal Ikasketen Zentroak (*Center for Basque Studies*) Aholku Batzordearen bilera egin zuen otsailaren 8an. Euskal gaietan ardura duten hogeitabat lagunek osatzen dute batzordea eta Australia, Mexiko, Euskal Herria eta Ameriketako Estatu Batuak daude ordezkaturik bertan. Urtean bi aldiz egin ohi du batzorde osarearen bilera Zentroak eta eraikin berri bat egitea du hurrengo helburu, hau da, Renoko euskal liburategia eta Euskal Ikasketen Zentroa bera bilduko litzuzkeena. Otsailako bileran parte hartu zuten artean izan zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Maria Anjeles Iztueta.



Zaldi Ero

# agenda

## Nazioarteko Biltzarra:

### ikaslearen ahozko hizkuntza

Escola adinean den umearen ahozko hizkuntzari buruzko nazioarteko biltzarra egingo da urriaren 23tik 25era bitarte Grenobleko (Frantzia) unibertsitatean. Bertako Atzerriko eta Ama-hizkuntzen Hizkuntzalaritza eta Didaktika laboratoriora da antolatzaile eta ahozko hizkuntzaren jabetzeaz, irakaskuntzaz eta okerren zuzentzeaz gogoeta egitea du helburu. Egitura linguistikoak ikasi ala hizketarako gaitasunak landu behar dira eskolan? Hizkuntza estandarra irakatsi behar da ala hizkuntza giza egoera ezberdinetara egokitzen irakatsi? Mintzapraktika eta komunikazioa areagotu behar da ala gaiok buruzko gogoeta? Horiek izango dira, besteak beste, biltzarraren eztabaidagaiak.

# pertsonajea

## Maria Angeles Garai Bizkaiko lehen andereñoa gerra ostean



Argitaratu berri diren *Bidegileak* bildumako 29. alean ageri da Maria Angeles Garaien biografia. Elixabete Garmendia kazetariak ondu du gerra ostean Bizkaiko lehen andereñoa izan denaren historia.

1957an ikastola abiarazi zuen Maria Angeles Garai Bilboko San Nikolas elizaren egoitzan. Bilboko lehenengo ikastolako lehenengo irakaslea izan zen, eta bakararra. Maria Angelesek gurasoei zor die euskaltasuna, haiengandik jaso baitzuen euskara Bilbon. Abertzale eta euskaltzalea izan zuen aita, Laukizen sortua eta gazterik Bilbora lanera joandakoa. Kanpoan ezin zuen arren, etxean euskaraz hitz egiten zuen beti. Amak Axpen

zituen erroak, Uruburu baserrian, eta bertan iragandako udaldiek are euskaldunago irauten lagundu zioten Maria Angelesi.

Bestalde, gerra ondoren Bilbon euskal giroa berpizten eta mamitzen lan egin zuen Xabier Peña maisu eta gidaria ere gogoan du gure bidegileak.

## BILBOKO EUSKALDUNA

1930ean jaio zen Maria Angeles. Unamuno institutuan egin zituen ikasketak, Eskola Normalean hasi baino lehen. Irakasle ikasi eta gaztelaniaz hasi zen irakasten, eskola partikularrak, Xabier Peñaren ondoan. Izan ere, 1946 orduko Bilbon ziren Xabier Peña eta bere anaia Xebe, gerra osteko erbestetik ihesi. Eguneroko lana egin eta gazteei euskarazko eskolak ematen zizkien Xabierrek. Haren ikasle izango zen Maria Angeles Garai ere, Txomin Agirre, Lizardi eta Orixeren testuak irakurriz eta alfabetatzen. Hurrena, ikasleak irakasle jarri zituen Xabier Peñak; besteak beste, Emille eta Maria Angeles Garai ahizpak.

## MUNDUKO EUSKAL BILTZARRA

1956ko irailaren 23tik 29ra Munduko Euskal Biltzarra egin zen Parisen eta bertan izan zen Maria Angeles Garai, Xabier Peñaren eskutik. Parisen, Donostian ikastolen lehen pausoak ematen ari zen Elbira Zipitria eta haren jarraitzaileetarik bat, Karmele Esnal, ezagutu zituen. Maria Angeles Garaik Elbiraren ikastolan ekin zion bideari. Hurrena, 1957ko urriaren 9an, Bilboko lehen ikastolak atek zabaldu zituen, San Nikolas elizako katekedian. Harrezkero hainbat aterpe izango zituen ikastolak, frankismoan batetik bestera ibilki: Iralabarriko Frantziskotarren komentua, gurasoen etxeak... Maria Angelesek etxean bertan izan zuen ikastola. Bideak ez zuen etenik izango harrezkero.



